

Xabier Letona



DANI BLANCO

Salbatu Espainia

USTELKERIA islatzen du egun Espainiak. Ez du merezi dozenaka auzien aipatzeak, baina bai joan den igandeko *Público* agerkari digitalak nola islatzen zuen irudi hau bere titulu nagusian: “Ustelkeria gero eta azkarrago hazten ari da: 130 auzi, 1.900 auziperatu eta 170 zigortu”. Zigortu horiek azken legegaldikoak dira, bestela askoz gehiago lirakeke. Horietako gehienak aske dira, kartzela zigorrak ez zuelako espetxeratzea eskatzen, tartean helegiteak direlako edo beste hainbat arrazoiengatik.

Enric Duran aktibista katalanak ez zuen halako zorterik izan, baina honek bestelako etsaia aukeratu zuen, eta bestelako arrazoiekin. 2008an iragarri zuen artikulu baten bidez: “492.000 euro lapurtu diet gehien lapurtzen digutenei [bankuei], haien jarduna salatzeke eta gizarte alternatibak eraikitzeke”. Bi hilabete pasatu zituen preso hainbat bankuri eskatutako maileguak ez itzultzeagatik. Fiskaltzak 8 urteko kartzela zigorra eskatzen zuen harentzat. Ihesi da egun.

Caja Madrideko txartel ilunen kontura 15 milioi euro xahutu zituzten kutxako hainbat agintari eta aholkularik, egun argiz eta inpunitate osoz. Eta *Púnica* operazioaz oraingoz dakigunagatik, 250 milioi euroko kontratuetan ustez %2-3ko komisioak eraman dituzte dozenaka auzipetuk. Zenbat urte pasatuko dituzte espetxean?

Ez dakigu, baina badakigu Urtzi Martinez eta Jon Telletxeak, oraintsu Deustun atxilotutako bi gazteek zenbat pasatuko duten: bi urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuten, Bilboko auzitegian pinitaketak egiteagatik.

Tartalariei ere bi urteko zigorra berretsi die Espainiako Auzitegi

Nazionalak, Yolanda Barcinari aurpegira tartak botatzeagatik. Nafarroako beste dozenaka pertsonari 1.000tik 8.000 euro arteko isunak iristen ari zaizkie ekitaldi publikoetan parte hartzeagatik. Bekatua, Nafarroako Gobernu ordezkartzaren esanetan, baimendu gabeko bilkuretan parte hartzea. Konparaketak gorrotagarriak direla esaten da, baina kasu haueetan guztiz argigarriak dira. Horiek Euskal Herriko kasuak dira, baina Espainian ere dozenaka dira estatuaren errepresioak gogor kolpatutako herritarrek. “Sumindu zaitzete” zioen Stephane Hesselek eta espainiarrak sumindu dira.

Joera hor dago eta Podemos oso indar garrantzitsua izango da hurrengo hauteskundeetan

PODEMOS-EKIN sumindu dira batez ere Espainian. Alderdi berriak Europako hauteskundeetan botoen %8 lortu zuen eta bost eurodiputatu. Orain inkestek lehen aldiz lehen postua ematen diote Espainiako 2015eko orokorretarako (botoen %27,7), PSOE-ren (%26,2) eta PPren (%20,7) aurretik. Beldurra barreiatu da sisteman. Ilusioa bestelako politikak nahi dituzten herritarren artean.

Inkosten zehaztasun eta erabile-ratik harago, joera hor dago eta Podemos oso indar garrantzitsua izango da hurrengo hauteskundeetan. Eta bakarrik horrekin gauza askok hasi beharko luke aldatzen apurka. Baina galdera nagusiak airean jarraitzen du: zer da Podemos? El Diario.es agerkari

digitaleko Guillermo Lopezek hala azaltzen digu: “Zapore populistadun neurriak eskaintzen dizkigu (oinarrizko errenta, jubilazioa 60 urterekin), akaso gauza ezinak. Edozeren gaintetik, ordea, orain daudenak kanporatzea eskaintzen du. Eta hori bai dela popularra: izan ere, hori da bere boto emaleen gehiengo handiak ematen dion egiazko abiatze-motorea”.

Zer den Podemos? Ikusiko dugu, baina badaezpa gerra Pablo Iglesiasi. *Antena 3* telebista kateak argi du. Horregatik narras manipulatu zuen La Sexta telebista kateko *Salvados* saioan Jordi Évole kazetariak egindako elkarrizketa saioa, esanez Pablo Iglesias guber-nuko lehendakaria balitz, honek TVEn bere saioa nahiko lukeela, Venezuelan Hugo Chavezek zuen *Alo Presidente*-ren modukoa. Egiazkoa nola izan zen? Galdera bai, ea halako saioa bat izango lukeen. Pablo Iglesiasen erantzuna ezin garbiagoa. “Ez inondik inora”. Interne-teko bideoa arras argia da.

Ezkerretik ere egiten zaio kritika Podemosi, ez duela programa ezkertiarra... Baina ulerkor, Pedro Pascualek *Rebelión*en azaltzen duen moduan: “Podemosen helburua ez baita hauteskundeak irabaztea, hegemonia lortzea baizik, ondoren prozesu konstituziogilea abiarazteko”. Behingoz norabidea aldatzeko eta, 1978an egin zen kontrara, Espainia guztiz aldatzeko.

Eta gainera Katalunia badoa. Sistema eskaera batekin dator Espainian gero eta indar handiagoz: “PP-PSOE, egin ezazue koalizioa eta salbatu Espainia”. ■

